

Hezkuntza Legea dela eta

Asko entzuten ari gara medioetan Hezkuntza Lege berriaren inguruan, baina garbi al dugu zein eragin izango duen Ikastolen izaera eta bizi-iraupenean? Ikastolen Elkarteak argitaratu duen azken aldizkarian, [giltzarri diren gai](#)ei buruzko ikuspuntua azaldu du. Lege eta araudiek Zurriola Ikastolan eta Ikastolen mugimenduan izan dezaketen eragina partekatze eta horien aurrean gure erantzuna zein izan behar den lantzeko, familia guztiei deialdia egingo dizuegu informazio osatuagoa dugunean.



Erdi Aroko gazteluak

LH 2. mailako lagunok burubelarri gabiltza Erdi Aroa lantzen. Joan den astean hondartzan gazteluak egiten aritu ondoren, ikastolan materiala berrerrabiliz ekin diegu gaur eraikuntza-lanei. Oraingoan 6. mailako lagunak izan ditugu ondoan, eta gaztelu zoragarriak egin ditugu.



Igeriketa-ikastaroa

LH 3ko ikasleak ostraleroko igeriketa saioak egiten ari gara Intxaurrendoko kiroldegian. LH 3Akoen txanda izaten ari da asteotan, eta aurrerago LH 3B eta LH 3Ckoen txanda iritsiko da. Monitore lanetan gure Ikastolako GKAlko irakasle eta ikasleak ari dira, eta ongi pasatzeaz gain, igeriketa hobetzeko bide izaten ari da. Bertakoek bertakoentzat eginiko jarduerak!



Teknologia berrien sentsibilizazioa

Aste honetan LH 5 eta LH 6ko ikasleek, Bidelagun taldeko Miren Ros-en eskutik teknologia berrien inguruko sentsibilizazio saioak eduki ditugu. Oso saio interesgarriak izan dira, eta gurasoak ere gai honen inguruan informatu eta sentsibilizatzeko saioak antolatuta ditugu. Atzo izan zen LH 4-5ko gurasoena, eta datorren astean duzue LH 6ko gurasoena. Animatu eta izena eman!



Euskaraz bizi nahi dut!

Bi aste falta dira Euskaraldia hasteko, eta hilabete Euskararen Egunerako! Aurten ere, egitarau berezia izango dugu gure hizkuntza aldarrikatzeko, eta Hizpro taldeak eta Gurasoen Euskara Batzordeak laster emango digute egitarauaren berri. Bitartean, [Euskaraz Bizi Nahi Dut](#) ekimenaren denda jarri nahi dugu zuen eskura.




Xiberoko Ikastolen alde elkartzasuna hedatzen!

Xiberoko Alozekoa eta Eperra Ikastolek Gabonetako saskiak erosteko aukera ematen digute urtero, bertako gurasoek ekoiztako produktuekin. Ikastolen arteko elkartzasuna adieraziz eta iparraldeko ikastolei bultzada emateko asmoz, aurten ere Zurriola Ikastola produktu hauek jasotzeko gunea izango da. Egin zuen eskaerak [ikaskoli.eus](#) gunean! Informazio gehiago [zirkular honetan](#).



OHARRAK / AGENDA:

- **LH2:** Santo Tomaseko festaren antolaketa. [Zirkularra](#).
- **LH4:** Donostiako Alde Zaharrera eta azokara egunpasako irteera. Azaroak 9.
- **LH6:** Teknologien arriskuen inguruko saioak gurasoekin. [Zirkularra](#). [Izen-ematea](#).
- **BATXILERGOA:** 1. ebaluazioko azterketak. Azaroak 3-9.
- **BATXI1:** Erronka konpetentziala. Azaroak 10-11.
- **BATXI2:** Orientazio akademikoko saioak. Azaroak 9.
- **Eskola Kirola:** [3. jardunaldia](#).
- **Helduen Danborrada:** Guraso eta langileentzako [izen-ematea](#) zabalik. Azken eguna azaroak 20.
- **Haurtxokoa & Gazteleku:** Azaroko [programazioa](#).



@zurriolartetarte